



Zebra muskuilu helduen koloniak goiz antzematea eta horien jarraipena Euskal Autonomi Erkidegoan. 2018

LABURPENA

Txostenaren egilea
Ramiro Asensio González
(Cuestasensio S.C.)

AGIRI MOTA: Urteko txostenaren laburpena.

AGIRIAREN IZENBURUA: Zebra muskuilu helduen koloniak goiz antzematea eta horien jarraipena Euskal Autonomi Erkidegoan 2018 - LABURPENEA.

ESLEIPENDUNA: CUESTASENSIO S.C.

EGILEA: Ramiro ASENSIO GONZÁLEZ.


DATA: 2018ko abendua..

2018ko urtean zebra muskuilu helduaren bila 81 laginketa egin dira euskal hidrografiaren beste hainbeste puntutan. Laginketa horietan, ibai edo urtegien ertzetako 14 Km-tan eta ia 52 orduetan zehar espezie horrek kolonizatu ditzakeen 8.000 harri baino gehiago miatu egin dira. Laginketa horietako bakoitzean gutxienerako bi baldintza bete behar ziren: 30 minutu eman eta 100 harri miatu.

EMAITZAK:

Laginketa horietako 51tan ez da zebra muskuilurik aurkitu; hala ere aitortu beharra dago horietako 8 laginketa ez zirela oso egokiak izan, ez baitzen gutxienerako 100 harriren miaketa baldintza bete. Gainerako 30 laginketetan, berriz, molusku inbaditzailea antzeman egin zen, nahiz eta 30 horietako kasu batean protokolatuta dagoen gutxienerako bi laginketa-baldintza horiek gutxi izan eta laginketa ahalegina handitu egin behar izan zen lehendabiziko muskuilua aurkitu arte).

Emitza horiek hurrengo mapetan laburtzen dira grafikoki.



E = Zebra muskuilurik EZ DA AURKITU; dena den, laginketan ez dira bete protokoloan ezarritako gutxienezko laginketa-baldintzak (30 minutu ematea eta 100 harri miatzea).




EE = Zebra muskuilurik EZ DA AURKITU aurre ezarritako protokoloaren araberako laginketan (30 minutu emanda eta 100 harri miatuta).




B = Zebra muskuilua AURKITU DA, baina lehendabiziko alea aurkitzeko beharrezkoa izan da protokoloan ezarritako gutxienezko laginketa-baldintza bikoitza gainditzea.



BB = Zebra muskuilua AURKITU DA, aurre ezarritako protokoloaren araberako laginketan (30 minutu emanda eta 100 harri miatuta).



◀ Kantauri isurialdean aztertutako ibai-tarteen kokapena



Mediterraneoko isurialdean aztertutako ibai-tarteen kokapena ▶

ONDORIOAK:

Orokorrean, zebra muskuiluaren banaketa oso gutxi aldatu da azken urtean. Edonola ere, Lekubaso ibaiaren azken tartean eta Zadorra ibaian, Uribarri-Ganboako urtegiara heldu baino azken kilometrotan, kanpotar moluskuaren presentzia lehendabiziko aldiz baieztatu egin dela aipa daiteke. Undabe ibaian, berriz, aurten ez da alerik aurkitu. Beraz, aurtengo zebra muskuilu helduen kolonien banaketa aurreko urtekoaren oso parekoa izaten jarraitzen du:

Kantauriko isurialdean:

- **Nerbioi** ibaian, Mendikosolo errekarerekin bat egiten duen lekutik, Arrigorriagan, baita **Mendikosolo** urtegian bertan ere.
- **Lekubaso** urtegian eta urtegitik **Lekubaso** ibaian beherantz, Usansolon.
- **Undurraga** urtegian eta hortik **Arratia** ibaian beherantz, Zeanurin.
- **Ibaizabal** ibaian, Arratia ibaiarekin bat egiten duen lekutik, Lemoan.

Mediterraneoko isurialdean:

- **Urrunaga** urtegian baita **Santa Engrazia** ibaiaren lehen tartean, Urrunaga presatik abiatuta. **Undabe** ibaian ez da aurkitu zebra muskuilurik aurten, baina aurreko urteetako esperientziek eta zuhurtziak hala aginduta, oraindik orain, hurrengo mapan agertu egingo da.
- **Uribarri-Ganboa** urtegian eta Arroiabe presan behera **Zadorra** ibaiaren lehen tartean, bai eta Zadorra ibaia urtegiaratu aurreko azken tartean ere.
- **Ebro** ibaian, Euskal Autonomi Erkidegoaren muga osoan zehar.

